

## EUZKADIKO GUDONTZIDIA



**E**uzkadiko Gudontzidia Eusko Jaurlaritzaren Defentsa Sailak sortu zuen, Errepublikaren Armadari itsas trafikoa eta arrantza-lanak babesten laguntzeko eta euskal portuen sarrera-irteerak urpeko minetatik libre izateko. Itsas armada hori osatzeko gerraontzi bihurtu ziren Bilbon babesturik eta zereginik gabe zeuden berrogeita hamar bat arrantza-ontzi, gehienak Pasaiaetik etorritakoak. Ontzi haientako batzuk armatu egin ziren (bou armatuak) eta beste batzuk urpeko minak harrapatzeko apareiluz hornitu (minaketariak). Sei txalupa motordun ere erabili ziren, baita dozena bat txalupa-azkar eta ontzi laguntzaile batzuk ere. Berun-arrez (grisez) margotu zituen ontzi guztiak eta beltzez amuletan zeukaten izenen lehen letra, edo zegokion zenbakia; brankan ikurriña eta txopan bandera errepublikarra eraman zuten. Portugaleten izan zuten basea.

Tripulazioak merkantzetan edo arrantzan ibilitako marinel boluntarioez osatu ziren. Gehienak ELA edo EAJkoak ziren, baina bazen Partidu Sozialistako edo UGTko afiliatu talde garrantzitsu bat ere. Talde txikiagoak ziren CNT, ANV, Partidu Komunista, edo Izquierda Republicanakoak. Jatorriari dagokionez, %87 euskaldunak izanik ere, galiziar dezente baziren eta baita Andaluzia, Kantabria, Asturias, Gaztela, Murtzia, Madrid, Katalunia eta Aragoa aldekoak ere. Oro har, 917 gizon eta 3 emakume izan ziren Euzkadiko Gudontzidian (34 lekeitiarrak) eta 62 serbitzuan hil ziren (3 lekeitiarrak).

Euzkadiko Gudontzidiko ontziek zenbait borrokaldi izan zituzten gerraontzi etsaien aurka. Garrantzitsuena 1937ko martxoaren 5ean gertatu zen, *Canarias* gurutze-ontzi frankistak, Matxitxako parean, Baionatik Bilbora zetorren konboi bat atzeman zenean. *Galdames* merkatal-ontzia *Gipuzkoa*, *Bizkaya*, *Nabaña* eta *Donostiaren* babesean zetorren; baina borrokaldiaren ondorioz, *Galdames* ontzia mende hartu zuten frankistek, eta *Nabaña* ontzikoen heriotza goraiagarria gertatu zen. *Nabaña*ko 29 tripulante, *Gipuzkoako* beste 5, *Galdameseko* 5 bidaiari eta *Canariaseko* tripulante bat hil ziren borrokaldian.

Bilbo erori zenean 1937an euskal ontziak Santanderrera eraman zituzten, eta han minaketarietan lanean jarraitu zuten. Gerran, guztira, 200 minutik gora indargabetu zituzten euskal minaketariak. Ontzi batzuk, tripulazio eta guzti, Errepublikako Itsas Armadaren esku gelditu ziren abuztuan, eta handik Asturiasera bidali zituzten. Asturiasera ebakuatu zenean, 1937ko irailean, amaitu zen Euzkadiko Gudontzidiaren langintza. Ontzi eta marinel gehienek Frantziara alde egitea lortu zuten. Frantziara iritsitakoek erdia, gutxi gorabehera, bertan gelditu zen gerra amaitu bitartean, baina beste erdia Errepublikaren menpeko lurraldeetara itzuli zen gerran jarraitzeko, itsas armadan, lurrekoan edo karabineoetan.

Juan Pardo San Gil  
(Matxitxako Elkarte)



lekeitioko udala

## SAN PEDRO JAJAK



2012

lekeitioko udala



## EKAINAK 27, eguaztena San Pedro bezpera

- 18:30** “Matxixakoko gudaketa eta Euzkadiko Gudontzidia (1936-37)” hitzaldia Azkue aretoan. Hizlariak Juan Pardo eta Aingeru Astui. \* San Pedro egunean, Euzkadiko Gu-daontzidian izan ziren lekeitiarren familiartekoek omenaldia jasoko dute Udaleko Areto Nagusian. \* San Pedro egunean, *Euzkadiko Gu-daontzidian* izan ziren lekeitiarren familiartekoek omenaldia jasoko dute Udaleko Areto Nagusian.

## EKAINAK 28, eguena San Pedro bezpera

- 18:00** Merienda eta jaia erresidentzian. Jubilatuen elkarteak antolatuta.
- 18:00** Buruhandiak eta D. Terentzio eta Dñ. Tomasa kalez kale, herriko txistulariek animatuta.
- 20:30** Lekitto musika-bandaren kalejira.

**Eraikuntzak**  
Kortabitarte, s.l.  
Santa Katalina etorb, 1-A  
48280 LEKEITIO  
Tfnoa: 94 684 08 52  
Faxa: 94 684 26 78

ETXEBIZITZA ETA LOKALEN SALMENTA  
MOTA GUZTIETAKO ERAIKUNTZAK

Okamikako Industrialdea  
Tel. 94 624 37 69  
48289 GIZABURUAGA  
Bizkaia

Urdaiazpiko  
eta  
hestebete  
iberikoak

**Urdaiki**  
Comercial

**Oiniz**  
Oiniz Zerbitzuak  
Catering eta Garbiketa zerbitzuak  
oiniz@euskalnet.net  
Parking Zabala - Okamika Industrialdea  
Tel. 94 684 22 11 ext. 28  
Gizaburuaga

**Kiñuka**

Argazkiak eta Diseinu Grafikoa  
www.kinuka.eu

## EKAINAK 29, barikua San Pedro eguna

**07:00** Dei eittekuak kalez kale.

**09:30** Herriko txistularien diana.

**10:00-14:00**  
Umeentzako antzinako jolasak plazako monolitoan.

**10:30** Lekeitioko Udaleko alkate eta zinegotzi jaun-andreen eta kofradiako lehendakari eta arduradunen udaletxetik elizarainoko prozesioa, Lekitto musika-bandak lagunduta.

**Gero:** Meza Nagusia, elizako abesbatzak abestuta.

**Segidan:** San Pedroren omenezko prozesioa, Lekitto musika-bandak lagunduta. Amaieran, antzinako ohitura zahar batekin jarraituz, San Pedroren irudiarekin Kilin-Kalakoa egingo da santuaren portuko irudi aurrean.



**Gero:** Kaxarranka. Antzinako dantza ikusgarri hau bakarra da Euskal Herrian. Kaxarranka, San Pedropean dantzatu ostean, Kofradia aurrean dantzatuko da.

**Bitartean:** Lekeitioko Etorkizuna Dantza Taldeak andrazkoen aureskuak dantzatuko du plazan. Horren ostean, Kaxarranka plazan.

**16:00-20:00**  
Umeentzako antzinako jolasak plazako monolitoan.

**16:30** Lekeitioko VIII. buruz buruko esku-txapelketako finalak, frontoian.

**17:00** Euskal Batel-Eroak helduko dira Lekeitiora eta batelen erakusketa osatzen joango da Abadeen moilan.

**20:00** Ikastola aurretik hasita Danborrada herrikoia, Aittitta Makurra txarangak alaituta.

**22:30** Suzko zezena plazan.

**23:00** Batel guztiak uretaratu eta tinglaupen lotuta geratuko dira.

## EKAINAK 30, zapatua San Pedro txiki

**10:00** Euskal Batel-Eroak elkarteko patroien batzarra San Juanen.

**10:30** Eguraldia lagun, batelen irteera portutik, belen igoera Tala parean eta nabigazio erakustaldia.

**11:30** Buruhandiak eta D. Terentzio eta Dñ. Tomasa kalez kale, herriko txistulariek animatuta.

**12:30-14:30**  
San Juan ermitaren aurrean, arraun eta belen laguntzaz estropadak jai giroan.

**13:00** Kalejira Kaiganetik hasita Eskolaperaino Lekitto musika-bandaren eskutik.

**Gero:** Erromeria Eskolapean.

**14:30** Batelen porturatzea eta erakusketa portuko uretan.

**17:00** “Kilin Kala” igeri lehiaketa, Garraitz kirol taldeak antolatuta.

**17:00** Euskal Batel-Eroak elkarteko partaideek, hala eskatuz gero, batel bakoitzaren ezaugarriak eta azalpenak emango dituzte erakusketan bertan.

**18:00-19:00 inguruan**  
Euskal Batel-Eroei agurra.

**20:30-23:00**  
Street dance txapelketa eta euskaraoke lehiaketa talan.

**23:00** Talatik udaletxerainoko kalejira, Lekitto musika-bandak lagunduta.



## UZTAILAK 1, domeka San Pedro baltza

**17:00** Umeentzako jokoak, Rufo Atxurra plazan.

**19:30** Xistera partiduko finalak frontoian.